



## OÑATI. GAZTEEN LOKALAK

GAZTEEN LOKALEN FENOMENOAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO ETA ELKARBIZITZA PROTOKOLOA OSATZEKO GOGOETA PROZESUA, 2014-2015

2015-03-11. / 3. SAIO BATERATUA

BILERAREN XEHETASUNAK:	DINAMIZAZIOA:
<ul style="list-style-type: none"><li>- Bilera zenbakia: 3. Saio bateratua</li><li>- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak, bizilagunak, jabeak eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoak</li><li>- Data: 2015-03-11</li><li>- Lekua: Gaztelekua</li><li>- Hasiera ordua: 18:30</li><li>- Amaiera ordua: 20:15</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Parte hartzaile kopurua: 5 lagun, 2 emakume eta 3 gizon</li><li>- Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)</li><li>- Udal ordezkariak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Xabi Piko (Gazteria zinegotzia)</li></ul>

---

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

---

Nerea Zubiak saioaren ongi etorria egin du.

Partaidetzazko prozesuaren azken saioa izango dela gaurkoa azaldu du.

Orain arte burututako proposamen desberdinak aintzat hartuta gaurko saioa lokalen inguruko aspektu desberdinak zehaztu eta erabakiak hartzeko saioa izango da.

*En la sesión de hoy, siendo la última de este proceso, se concretarán y tomaremos decisiones de algunos de los aspectos tratados en las anteriores reuniones.*

---

## 2. AURREKO SAIOKO LABURPENA

---

Aurreko saioan lokalen jarduera arautzeko arlo desberdinen inguruko proposamenak egiteko izan zen.


Eremu hauetan egin genituen proposamenak:

- Soinua
- Espazioaren erabilera
- Komunikazioa
- Betearazpena
- Lokaletako baldintzak

Aurreko saioan egindako proposamenetatik abiatuta gaurko saioan hauen gaineko erabakiak hartuko dira.

### 3. EREMUETAKO PROPOSAMENAK

Talde handian gai edo eremu desberdinetan aurreko saioetan egindako proposamenak zehaztu eta erabaki dira.



#### ► SOINUA


Aurreko saioan landutako bi proposamen izan dira eztabaidagai gaurko saioan eta bi hauen gaineko erabakia hartzeko dinamika burutu dugu.

Jarraian, aurkezten den argazkian alde batetik (koadroan bertikalean) orain arte zehaztu diren beharrak ageri dira eta horizontalean soinuaren afera arautzeko bi alternatibak ageri dira:

Soinu ordutegia. Lokalean sortu daitekeen soinu maila erregulatzea.

Erabilera ordutegia. Lokalen erabilerarako ordutegia ezartzea.

Proposamen bakoitza orain arte zehaztutako beharren arabera baloratu dugu, behar bakoitzari pertsona bakoitzak 0tik 10era bitartekoa zenbaki bat eskainiz. Zenbaki horien batz bestekoarekin termometroa osatu dugu, behar bakoitza zein neurritan osatzen den ikusteko.



Koadroaren edukiari erreparatuta honakoa ikus daiteke:

- Bi kasuetan ordutegi libreen beharra ikusten da arriskuan dagoela, termometroan temperatura hotz samarrarekin antzematen da. Erabilera ordutegiaren kasuan inondik inora ez duela bermatzen ikusi da, 0 batekin baloratua izanik.
- Komunikazioa bi kasuetan bermatuta ez dagoela ikusten da eta eremu hau hobetzeko beharra argi ikusi da.
- Errespetua eta bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak ezagutzea bermatuta ikusten da bi kasuetan, errespetua edo deskantsurako eskubidea erabilera ordutegiaren kasuan bermatuagoa ikusten bada ere.
- Azkenik, segurtasunaren eremuan bermatuagoa ikusten da erabilera ordutegiaren kasuan. Soinu ordutegiaren kasuan zalantzan ikusten da aspektu hau. Desberdintasun honek, nagusiki, segurtasun arazoak kasu askotan gauean gertatzen direlako erantzuten dio.

Termometroaren tenperatura hotzeneri erreparatuta SOINU ORDUTEGIA hobestea erabaki da, bi proposamenak ikusita eragozpen gutxien sortzen duen proposamena izanik.

Era berean lokalen insonorizatzeko aukera balioan jartzea adostu da, aukera dagoen kasuetan hau bermatzeko aukerak aztertuz.

#### *RUIDO.*

*Se ha realizado un análisis y valoración de las dos propuestas realizadas en la sesión anterior.*

*Horario de ruido. Hacer cumplir la normativa de convivencia y establecer un horario de generación de ruido en los locales.*

*Horario de uso. Establecer un horario para la utilización de los locales.*

*Hemos analizado cada propuesta teniendo en cuenta las necesidades que en sesiones anteriores concretaron las personas participantes: derecho al descanso, comunicación entre las partes, horarios libres, seguridad, conocimiento de derechos y obligaciones.*

*Con ello se considera que la opción que menos afecta al conjunto de necesidades expuestas es la opción de establecer un horario de emisión de sonidos, con su consiguiente procedimiento sancionador en el caso de no cumplirse.*

## ► **BIZIKIDETZA**

Orain arte bileretan zehaztutako aurkeztu da papelografo batean.

- Espazioaren erabilera: kotxeak aparkatzeko eta bizikletak aparkatzeko lekuak
- Komunikazioari dagokionez honako neurriak sortuko dira:
  - ✓ Gazteek komunitateko bileretan parte hartze urtean behin
  - ✓ Komunitatea eta gazteen arteko harrera protokoloa zehaztu
  - ✓ Lokalak erabiltzeko gida osatzea
  - ✓ Komunitate arazoak sortzen direnean Gazte sailetik bitartekaritza lana burutuko da

Honakoak dira gai honen inguruan planteatu diren galderak eta partaideek eskainitako erantzunak:

**Ze puntu jaso behar ditu harrera protokoloak?**

- Santzio prozeduraren azalpen eta aurkezpena jasoko du
- Lokala erabiltzen hasi aurretik bizikidetzaz adostuko dute bizilagun eta gazteen artean (hitzarmena osatzeko saiakera)
- Lokal jabeek protokolo honetan papera jokatzeko dute ere
- Harrera bilera burutuko da gazteek lokal bat hartzen dutenean. Harrera bilera horretan lokaletako erabiltzaile, bizilagun eta jabeek hartuko dute parte
- Lokala erakutsiko zaie bizilagunei gazteek hala nahi badute, elkarbizitzarako lehen urrats gisa

**Bitartekaritza... nola irudikatzen dugu? Norkosatzen du?**

3 urrats desberdin egongo dira bizilagun eta erabiltzaileen artean arazoak sortzen direnean:

- Gazte eta bizilagunek zuzenean hitz egitea izango da lehenetsiko den urratsa. Gazteei egoeraren berri eman eta soluzionatzeko saiakera egingo dute.
- Jabeekin. Bizilagunek lokal jabeekin jakinaraziko diete beraien kexa, jabeek kexa honen berri izan dezaten. Jabeek komunikazio bidea zabalduko dute erabiltzaileekin.
- Udalarekin. Bizilagunak udaleko bitartekariarekin jarriko dira harremanetan egoeraren berri emateko eta bitartekaria gaztekin harremanetan jarriko da. Honen ostean osatuko da Bizikidetzaz Mahaia, udal bitartekariak kudeatuko duena. Mahai hau biltzen den lehenengo aldiaren arazoak aztertu eta neurriak hartuko dira.

Bi hilabete behin bitartekaritzarekin elkartzea. Berezitu beharko litzateke arazoak eragin dituzten egoerak eta arazorik gabeko egoerak. Azken hauetan ere udaleko bitartekaritzarekin elkartzea komenigarria litzateke. Komunikazio bide iraunkorra egotea planteatzen da.

**► BETEARAZPENA**

Zehazten den jarduera protokoloa betearazteko prozeduraren inguruko zehaztapenak burutu dira.

Honako galderak luzatu zaizkie partaideei. Jarraian, ere, eskainitako erantzunak aurkezten dira.

**Ze jarduera kontsideratuko dira arau haustekak?**

Espazioaren erabilerarekin loturikoak (gaizki aparkatzea) eta soinu ordutegia ez betetzea edo gainditzearekin lotutakoak

**Zein izango da prozedura? Zenbat kexekin hartuko dira neurriak? Ze neurri hartuko dira?**

Arau hausteen mailaketa bat egitea proposatzen da (arinak, larriak eta oso larriak).

Kategoria bakoitzaren barruan arau hauste desberdinak sortu eta batzuen errepikapenak maila altuagoko santzioa izatea suposatuko du.

**► EZARPENA**

Epeak martxan jartzeko prozedura eta epeak eztabaidatu eta hainbat aspektu argitu dira.

Aurreko saioan lokalen erregistroa osatuko dela zehaztu zen.

Hona hemen formulatutako galderak eta partaideen erantzunak:

**Araudia sortzen denetik ze epeetara erregistratu beharko dira lokalak?**

Lokaletan eta jabeekin egin beharko den aurkezpen eta lan komunikatiboa aintzat hartuta hilabete batzuetako epea eskainiko da.

**Zenbateko epea eskainiko zaie obrak egin behar dituzten lokalei eta euren jabeei?**

- Ahalik eta azkarren
- Hilabete bat eta bi artean
- Daudenei epe bat eman eta zabaltzen diren lokal berriei zuzenean baldintza egokituak izatea eskatuko zaie
- 2 hilabete identifikatzeko eta teknikariak ikuskatzera joateko

**CONVIVENCIA.**

*Se establecerá un protocolo de convivencia para garantizar una convivencia adecuada entre las partes, este protocolo será común para todos los locales y vecindarios.*

*Se concreta que existirá un protocolo de comunicación cuando surjan problemas de convivencia: hablar entre vecindario y usuarias/os, hablar con la/el propietaria/o y finalmente el mediador del Ayuntamiento hablar con las partes.*

*El mediador del Ayuntamiento será una figura de referencia ara usuarias/os de los locales.*

**CUMPLIMIENTO**

*Se considerarán sancionables aquellas actitudes que no respeten el horario de sonidos y las que no respeten el uso adecuado del espacio exterior de los locales.*

*Para ello se concretarán las sanciones mediante una categorización de las mismas (leves, graves y muy graves).*

**IMPLEMENTACIÓN**

*Se creará un registro de locales en el Ayuntamiento y para ello habrá un plazo de unos meses para registrarse.*

*Se establecerá un periodo de tiempo de unos meses para realizar las obras que en cada local se tengan que realizar para adecuarse a las condiciones requeridas.*

**► AZPIEGITURA BALDINTZAK**

Aurreko saioan zehaztu ziren azpiegitura baldintzak aurkeztu dira:

- Komuna
- Argindarraren potentzia altua
- Ate segurua
- Aireztatzea
- Lurrazpiko garajeak ez izatea
- Extintorea
- Irteera argiak
- Sukaldea ez izatea edo baldintza zehatzak izatea horretarako
- Teknikarien bermea (ikuskaritza) izatea lokalen baldintzen inguruan
- Animaliak lokalean izatea?
- Asegurua
- Kontratua

---

## 4. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

---

Zinegotziak hurrengo urratsak gogoratu ditu. Gaurko saioan hartutako erabakiekin protokolo zirriborria erredaktatuko da. Honetarako udal teknikari desberdinen iritzia jasoko, betiere, saioan hartutako erabakiak aintzat hartuta.

Behin zirriborria izanda deialdi ireki baten bidez honen aurkezpena burutuko da. Deialdi honen berri hurrengo asteetan emango da.

*El siguiente paso será la redacción de borrador que contemple la regulación de uso de los locales teniendo en cuenta las decisiones y las aportaciones realizadas en el transcurso del proceso.*

*Una vez redactado se realizará una presentación, cuya convocatoria se realizará en ñas próximas semanas.*

---

## 5. SAIOAREN BALORAZIOA

---

Partaideei gaurko saioa eta prozesuaren balorazioa egitea eskatu zaie.

Hona hemen bildutako erantzunak:

- Ondo gidatua baina ariketa zail samarra (4.saioa)
- Ona, bilerak prestatuta izatea gauzak errazten ditu
- Elkar ulertzeko asmoa (4.saioa)
- ***Jende gutxi behar zen bezala debatitzeko, gainerakoan ondo***
- ***Balorazioa: 7***
- ***Balorazioa: 8***

***Saioan parte hartu izanagatik eskerrak emanez, bukatutzat eman da bilera  
2015eko martxoaren 11an, 20:15etan.***